

rratu nahi baditugu, ezkontza eta egungo familiaren dinamikaren kritikatik abiatu beharko gara, ene ustez. Betebehar hau denona da, bainan beste tokitan frogatu den bezala, emakumeak dira arazo honetan eritzi eta urrats-bide berrienak proposatzen dituzteñak. Gizonezkoak, maizetan, ez dute estruktura kritikatzen, ez ditu ezkontza instituzio bezala zalantzan jartzen, instituzio eta estruktura horretan, status pribilegiatu bat duelako. Eskuarki, ez da bere emaztearengandik apartatzen beste ordezeko bat bilatu gabe... ezkontzaren dinamikatik apartatu gabe.

Emakumeekin gertatzen dena, guztiz ezberdin dela derizkiot.. Dibortziorako askoz uzkurragoak garela, gizonak baino, iruditzen zait. Nahiz eta ezkontza izan, gehienetan, opresioa nagusiaren unea. Azken hau, jaso dugun heziketagatik uler daiteke: Gizasemeentzat, ezkontza, familia, nahiz eta inportante izan, beste gauza garrantzitsuenetariko bat, besterik ez da.. bere lana, bere anbizioa... Emakumeontzat, berriz, maitasuna, ezkontza, familia, balore absolutoena da. Ez du parekorik.

Bere bizitzaren ardatz eta betebehar nagusia da. Hortarako heziak izan bait gara. Gizonarengandik askatuz gero, haur indenfeso bat bezala sentituko da gizartearen aurrean... tokirik gabe, statusarik gabe, senarra ohi baita emakume askok gizartearekin lotzen dituen kate bakarra. Senarrarik gabe, zer egingo dut? Zer izango naiz? Zer gertatuko da nerekin ohian bildurgarritzko tankera duen gizarte honetan?... «Berririo «SALMENTAN» kartel bat jartzea, gazte garaiean bezala?»-esaten zidan lagun batek..

Ez! Ez badaude izugarritzko arrazoiak, tratatu txarrak etabar, emakumea bere indar guztiekin erresistituko da, bere semealabegatik dela esanaz, senarraren infidelitate edo indiferentzia mila eratan sublimatuz..

Halaere, egoera honetatik irtetzen den emakumea, bizitza bere gain hartzea erabakitzen duena-eta badaude!-hau, askotan ez da dibortziotan geratzen eta bere esperientziatik abiatuz, bide berri batzuk aztertzen eta frogatzen hasten da, berezkondu gabe.

Zer esanik ez, honen bidea askoz zailagoa da, marginaturik bizi beharko du eta heziketa kas-trante baten aurka altzatu beharko da.. Bainan aurrera joate bat izango da eta ez betiko «inpasera» bueltatzera.

Lehenago esan dut, guri suertatu zaizkigun garaia zailak direla eta gainera, oso konplejuak direla erantsi behar dut orain. Hau da, idatzi dudanarekin, ez dut uste dena esanda dagoenik, arazo hauetan gauzak simpleak direnik, bainan etorkizuna aiartu dudanez, etorkizunarekiko zorretan gaudela, guri eta datozeniei, beste bizitza libreagoa eskaini beharrean gaudela derizkiot. Eta dibortzioak, alde hortatik ez gaitu inora eramaten, gurpil zoro batetara ez bada behintzat.

